



# TXIRRITXOLA

12. ZENBAKIA 1994.EKO ABENDUA BAKIOKO EUSKERA BATZORDEA

## EGUBERRI ON!


opa dizuegu aldizkariaren  
baztertxo honetatik.  
Zuen zai gaude hemen  
edozer argitaratu nahian.

Bestela, kantu zaharrak dioenez:  
"URTE BARRI BARRI  
TXARRI BELARRI  
DEKONAK EZ DEKONARI  
NIK EZ DEKOT ETA NIRI,  
OSTANTZEAN MAILUTXUAGAZ  
AGINTXUAK HAUSI.  
KRISKITI, KRAUSKI!"



## ZUMETXAGAKO SAN MIGEL

Nahiz eta gure herrialdea ez izan lar aberatsa erligio-arteari dagokionean, baditugu bitxi aipagarri batzu eta berauen artean ZUMETXAGAKO SAN MIGEL.




Jata mendiaren eki-magaletan kokatua, bere bakardadean dirau, baso eta sastraken artean; haritz, makal eta gaztainondo ugari dira bere inguruan. Bere hegoan baserri jagolea dugu, Zumetxaga deritzoguna, ekialdetik Markaidea eta Larraurirako bidea hartzen delarik eta mendebaldetik Bakiorakoa.

San Pelaio eleizaren antzera, Erdi Aroko XII. mendeko erdialderantz eraikia "erromaniko" artearekin zerikusi handiaz, nahiz eta transizioko nahasketak izan. Aipatzekoa da ipar alderantz duen lehiatila, argi sarrera bezala, eta jakintsuek diotenez baliagarriagoak dira ermita honek barruan dituen arte mustrak kanpokoak baino.

Kanpo itxura zurruna duen eraikuntza honen inguruan, ospatzen dute Larrauritarrek eta Bakioitarrek San Migel eguna irailaren 29an. Esan beharra dago tradizioa

ez dela sakondu Mungian nahiz eta beraren patrimonioa izan. Ohiturak dute bere zergatia: Badirudi XVI. mendean Larrauriko eliza parrokia izendatu zutenean San Migeleko interesa ere sortu zela eta hortik beharbada Larraurikoek berarekiko duten maitasuna. Bakiok, alderantziz, ez daki nondik dator kion ohitura hori; uda pasatuz gero, itsasoko haizeek barrura begira jartzen ote gaitue?



## "COMPOPLAS" LANTOKIAREKIN ELKARRIZKETAN

ITSASOAN HASI, BASARTETIK PASA ETA BAKIOKO INDUSTRI-GUNEAN KOKATUTA DAGOEN LANTEGI HONETATIK BADAUKAGU ZER ENTZUN ETA ZER IKASI. AURRERA MUTILAK!

G.-Zergatik enpresa mota hau eta zergatik Bakion?

**E.-Zaletasun bat legez sortu zen eta gure bizi moduan bihurtu da. Bakion jarri dugu gure lantegia, produkzioa eramaten dugun bazkideak herrian bizi garelako eta gainera herri handi baten baino merkeagoa delako.**

G.-Zenbatek osatzen duzue?

**E.-Lau bazkide gara: Iñaki Serna, Jose**

**Luis Vilas, Txetxu Renteria eta Andoni Zelaia; eta bihargin bi dauzkagu Jabi Ayo eta Unai Ormaza.**

G.-Merezi al du lan mota honek?

**E.-Oraindik ez dakigu, ez gaude nahiko denbora lan honetan.**

G.-Sarietak ere izan zarete, zer dela eta, zertan datza saria?

**E.-Sari garrantzitsuena "1993.eko Euskadiko Entrepresari Gaztea". Beste mota desberdinetako Sariak ere badauzkagu, teknologiari eta entpresa ideia berrien arloan.**

**Sari hauek, ekonomiaz ez digute ezer eman, baina bai balio izan dute jendeak geuri ezagutzeko, adibidez publizitatea.**

G.-Bakioko herriak ba al dauka zuen bemi ala kanpokoak ezagutzen zaituztete gehiago?

**E.-Herriak kanpo askoz gehiago ezagutzen gaituzte, esaterako guk arraunketarako fibrazko untiak egiten ditugu eta herri honetan ez dago afiziorik.**

G.-Etorkizunari begira irteera asko ikusten al duzue?

**E.-Bai, hau ez dago industri-arlo berrietan eta untzietan sakondu eta handitzea da gure helburua.**

G.-Nola moldatu zarete oztopoak gainditzeko, ekonomikoak, tokia...?


**E.-Milaka arazo geneuzkan, behar bada ekonomikoak. Banketxeak ez dira fidatzen gazteriarekin ez daukagulako ezer geurea denik.**

**Tokiari buruz 700 m. karratuko pabeilo batean hasi ginen eta orain 2.000 m. karratuko beste batera aldatu gara. Hau dena ahalegin asko kosta zaigu.**

G.-Salmentak, nola egiten dituzue, zuzenean, intermediarioen bidez, edo zelan?

**E.-%80a zuzenean saltzen diogu Arraun Elkarteari, bestea banatzaileen bidez.**

**BETI BEZALA "TXIRRITXOLA" LABUR GERATZEN DA ESPAZIO ALDETIK ZUEN ASMO ETA AMETS GUZTIAK AZALTZEKO, BAINA JAKIN EZAZUE GUNETXO BAT PREST DUZUELA BERTON NAHI DUZUENERAKO, HURRENGORARTE.**



# Mungialdetik

## SAN MARTINA ARRIETAN

Santu honek, berez, txarriarekin zerrikusirik ez izan arren, tradizioz ezinbestekoa da, San Martin irudi honegaz lotzea, izan ere udagoienaren bamean gagoz eta txarriak hiltzen hasteko egokienetarikoa da sasoi hau; solo eta baratzetan apenas dagoen lanik, negua urrean dago; txoriak gizenduta dagoz, porru kipula eta piper "txorizedunak" prest daukaguz eta txorizo, permil, solomo eta saezkiak sikatu eta jateko berebiziko eguraldi hotza jatorku aurki. Urruna ere errotetan eiotzen dago sarteneko koipetsuen lagungarri.


Inguru honetan bizi garenontzat eta batez ere Arrietakoentzat, San Martinek beste zeozer ere badu, jaiak eta ez edozelakoak, Kriston jaiak! Mungialde, Bakio, Bermeo, Busturi etabar aldeko hainbat eta hainbat jente urreratzen da San Martinetara, bi eskualdeetako jentea batzen dau Arrietak bertoko odolosteak eta urtearen azkenetariko jaiak direnen aitzakiz. Baina gure bizimodua aldatu den eanean, jaiak ere aldatuz joan dira, baserrietako gazteok kaletarren moduan bizi garen ezker, jaiak ere kaletar kutsua hartzen doaz. Mantentzen dira odolosteak baina ohitura hutsa dira, tradizioa, ez dagoz gure bizimoduarekin loturik, sinbolo bihurtu dira, txarriboda, txarriaren inguruan baserrietan egiten zen jai desagertuz doa. Jaietako egitarauan idipropa, ezpatadantzari e.a. mantentzen diran arren gauak hartu du protagonismo osoa, berbenak dira nagusi, baina kontuz, momentuan fama den orkesta ez badozu programan jartzen "jai daukazu", jentea ez dator.

Hala ere esan beharra dago Arrietako jaiak mantentzen dabela ohi dabean giro ona; odolosteak primerakoak dira (nahiz eta batzuk kontrakoa esan) etxean hasitako txarri eta landatutako porru eta kipulez eginak, Libon auzoan dagoen taberna bakarrean behintzat. Berbena, idi proba, baserri-makina espozizioak etabar osatzen duten egitarauak jente asko erakarri dau eta datozen urteetan ere hala izatea itxaroten dugu.



## BAKION ERE BADA SAN MARTIN

Batzuk (gazteak gehien bat) ez dakigu ezer jai honetaz, baina jakin daigun urtero urtero ospatzen dela gure herriko auzo batetan. "Goitxi" izeneko baserri ondoan dago kokatuta San Martin ermita eta bera mantentzeko auzoko jentearekin elkarte antzeko bat sortu da.




Urtero, egun honetan, meza bat egoten da ermitan eta honen ostean elkarteko diru, esku eta janari laguntzen berri emoten da, baita izandako gastuenak ere. Numeroak ordenan ipiniz, giro ezin hobean, jan eta edan egiten da, baita zabaletako batzuk dantzatu ere txistuaren soinu alaiak entzunez. Aurtengoan pasatu zaigu, ia hurrengoan gazteak ere animatzen garen.

### BAKIOKO GARRAIOEI BURUZ

Esan beharra dago, Bakion komunikatzeko garraio eskas dagoela, hau autobusengatik diot, nire ustez eta jende askoren ustez, batez ere gazteok, bai Mungira joateko, bai Bilbora joateko, Bakiotik autobus gutxi irtetzen da, hau da, ordu gutxitan.

Mungian, esate baterako, orduro daude autobusak, eta ez herri txikia izatearren, izan behar dugu horren garraio gutxi.

Beraz, gutun honen bidez, beharrezkoa zaigu eskatzea, Bakiotik, sarriago irten daitezela autobusak, gure erosotasunerako.



Darokan  
94ko Azaroak 16

Azkenengo egunotan zuri idazteko gogoaz ibili naiz baina uea iristerakoan halako blokeo moduko zerbait sentitu dut, horrekin batera bertan behera idazteari utzi egin behar izan diot. Zergaitia zein den jakin nahi izango duzue ez esango dizuet ez dela batere erraza paper zati hontara ekartzea Bakiori buruz ditudan burutapen eta gogoetak; are gehiago azken hamar urte hauetan preso nagoenez ezin izan naizela Bakio aldean egon ezta Euskal Herriko hainbat tokitan.

Txiki txikitatik Bakio ezagutu eta maite izan dudana gogoeta dut. Bilbo aldean erdara nagusi zenean, Bakion euskarak bere gordelekua zuen. Hau horrela adieraziz gain, ez du beste munduko esangurarik, baina garai haietan euskara oraindik debekatua zegoen eta ez zeukan egun izan dezakeen babesik.

Askotan ene buruari galdetu egin diot zergaitik aurkitzen zen frontoi ondoko etxekeo paretan "BAQUIO" hitza horrela idatzita. Txikia nintzenean, bitxikeria horrek ene arretoa osoa eskuratzen zuen zeren, zer dela eta Bakio hitza "K" hizkiak idazten denean "Q" hiri, hor paretan hain era nabaritan agertzea? Garai horretako kontuak eta arrazoiak ondo ikasi nituen gerora, hots Euskal Herriak pairatzen zuen zapalkuntza zeharo barneratu zitzaidan eta nolabaiteko erantzuna ematera behartu ere, horren lekuko egun jasotzen ari naizen egoera.

Tira, Bakiotaz ari garenez aipatuko dizut oso gustora egon naizela beti bertan, bai jendearen arretoa gaitik baita tokia paregabea delako. Bakiora hurbiltzen ginen bakoitzean pozik jartzen ginen, askotan abesten ere jartzen ginela.

Garai haietan ez zen jendetzarik. Udaldian zertxobait gehiago baina orokorrean ikusita egun dagoen baino askoz gutxiago. Nola ez! Pixkana pixkanaka hasiz joan zelako. Han hemenka etxe edo eraikuntza erraldoiak eginez, txaletak; itsaso aldera, kalero aldera, nonnahi. Askotan amorrubizian jartzen nintzen ikusiz zein era basatian eraikiak izan diren hainbat etxe.

Tira, egun badakit gauza asko aldatu direla bertan: kale berriak, espaloiak, ikastola zein gaztetxea; Udaletxea berritu, Depuradora, hondartza atondu e.a...


Argi dago, beraz, Bakio bizirik dagoen herri bat dela eta azken 10 urteetan bereziki izugarritzko aldaketak egon direla bizitasun horri esker. Nolabait esateko edertu egin du bere aurpegia eta itxura. Benetan lan itzela izan da zeren berez duen edertasuna -hondartza dela, naturgune berezia dela- ezkutuan mantendu ahal izan du han hemenka zituen itsusikeriak.

Darokan nagoenetik inoiz baino gehiago sentitzen dut Euskal Herritik urrundua izana; mendi, baso, biztanle edo euskararen hutsunea oso nabaria ei da halakotetan, herrimina inoiz baino gehiago izatera iristen delarik. Bakio aldean ezin egona da gehien sentitzen dudana; azken finean bertan emon ditudalako hainbeste denbora gazte nintzenean. Ez dakit noiz kaleratuko nauten. Badakizu, arazoak egongo dirala beti Euskal Herrian baldin eta dagokion eskubidea -Subirotasuna- ASKATASUNA, lortzen ez badu.

Lasai egon zeren hemendik irten bezain pronto tximista gisara, ziztu bizian, Bakiora joango naiz. Ia behingoz bertoko txakolina dastatzeko aukera dudana, itsasoari begira nagoen bitartean, lagunena, etxekeoena, denon konpainian.

Beno, patio aldera joateko ordua denez agur esateko beta besterik ez dut. Gaur ziur naiz, hemengo lagunekin bueltaka nabilen bitartean, begiak itxiz gero, Bakio aldeko zure txirrio eta berri ene baitara iritsiko direla.

GERO ARTE LAGUN, AGUR:  
**MARKEL**



# Gabonak

## GALDERAK:

- 1.-"Gabonak" hitza entzuten dozunean, zer da lehenengo bururatzen zaizuna?
- 2.-Zer adierazten dizute gabonek?
- 3.-Gabonetatik, zer da gehien gustatzen zaizuna? Eta gutxien gustatzen zaizuna?
- 4.-Nori eskatzen dizkiozu zure opariak, Olentzerori ala Erregeei? Zergaitik?



JON ABIO, 15 urte

- 1.-Olentzero, familia elkar ikustea.
- 2.-Zoriontasuna eta opariak emateko gogoia.
- 3.-Gehien Olentzero jaia, gutxien, Olentzerok ezer ez ekartzea.
- 4.-Olentzerori. Erregeak ez didatelako ezer ekartzen.



OIHANE LONGARAI, 7 urte

- 1.-Opariak eskatu.
- 2.-Olentzero datorrela, oporrak direla.
- 3.-Gehien, oporrak eukitzea eta opariak, gutxien, Olentzerok ikatza ekartzea.
- 4.-Olentzerori Euskal Herrikoa dalako.



UNAI BEITIA ABIO, 19 urte

- 1.-Niri, egia esateko, oporrak eta urte barri bat hasi behar dala.
- 2.-Bake eta poztasun garaia dala, edo behintzat izan behar lukela.
- 3.-Familiaren armonia, janari ederra, eta noski, jaiak eta oporrak. Aro horretan beti gogoratzen zara janari edo arroparik ez daukien jendeagaz, hori da tristeena.
- 4.-Txikitan bieri eskatzen neutzien, baina orain ez dot ezer eskatzen, datorrena hartu eta aurrera.



IÑAKI ABIO LASA, 75 urte

- 1.-Urtea bere akabura heldu dala.
- 2.-Alkartasun eta bake egunak direla, eta familiagaz pasatzeko.
- 3.-Familiaren alkartasunaz eta afari on bategaz pasatzen diren egunak, gabona eta gabon zaharra. Gutxienez, gazteak jai gehiegi egiten dabezala, eta ez gure sasoiako modukoak.
- 4.-Erregeei eskatzen dautsiedaz, ze halantxe egin dot beti.



AGURTZANE IMATZ, 50 urte

- 1.-Turroie, gozokiak, txanpana..., gauza onak.
- 2.-Etxekoak eta lagunak elkarregaz egoteko egunek dira, aintzinako kontuek botatzeko eta barre egiteko.
- 3.-Gehien, danak elkar egotea, eta gutxien, oso arin pasatzen direla.
- 4.-Olentzerori, ze geuria da eta erregeak kapokoak, eta gainera denbora gehiago daukazu oporretan opariegaz ibiltzeko.

# Euskararenak



**Honela gaude!** U.P.V. delakoan, "Euskal Herriko" Unibertsitatean, euskara gurea gantzontzilotan dago... Hala dinoe behintzat bertako euskal adarretako ikasleek. Azken salaketa *Arte-Ederretako fakultatetik* datorku, eta hango ikasleek dinoenez, euskaraz 1. zikloan har daitezke klaseak, baina ez 2. zikloan (4. eta 5. kurtsoetan); gainera 1. zikloko klaseak gainezka dagoz -ikasle kopurua erdarazkoen bikoitza da-; berez 60 ikaslerentzat prestatuta dagoen gela batean, 100 ikasle euskaldun sartzen dabez.

Orain arte konponketa bila bide administratiboa jorratu dabe, baina alfer-alferrik, eta adibidez, erretoreak -Goiriena jaunak- ez dauz ikasleak hartu gura izan, eta bardin Buesa jaunak be.

Azkenik kalera urten behar izan dabe protesta egitera, eta egunotan Gran Vian gora eta behera dabilta, oinarrizko eskubide baten bila. Hala dabiz, eta "honela gaude" izendatu dabe heuren agiria.

"Egunkaria"tik jaso dugu beste salaketa bat. Soziologian eta Kazetaritzan ere, irakasle euskaldun batzuren faltan dagoz; beraz euskal adarretako ikasleak zenbait asignatura erdaraz hartzera behartzen dabez.

OSEAKE...

**EUSKARA HOBEAN HOBE**

Sarri askotan halako esakera erabiltzen doguz sarrera edota juntagailu gisa: "Aber laster bagoaz", "Ake ez dator", "oseake ez da etorri", "asike alferrik etorri gara", eta antzekoak gehiegitan entzuten dira zoritxarrez gure artean; baina badago okerra zuzentzerik. Horra hor:

## TXARTO

Aber suerte hobea badugu

Ake ez dator!

Ake bai!

Oseake ez gatoz gaur

Eske ez daukagu dirurik

Yake ez dator, goazen!

## ZUZEN

Ea suerte hobea dugun.

Ezetz etorri!

Baietz!

Beraz gaur ez gatoz

Izan ere, ez daukagu dirurik


Goazen, ez dator eta

***BERAZ, badakizue; erabili, saiatzea baino ez da.***

# MODAN DAGO

Bai ba, Euskara modan dago. Mayor Oreja, Mosquera eta beste batzuk aurkitu berri dabe gure hizkuntza txikia eta ikasi ez dabe ikasiko, baina botoak emongo badauz -eta emoten dauz aurki- gogor erabiliko, edo hobeto esanda, gogor zigortuko dabe. Azkeneko aukera -oraingoz- funtzionarien euskalduntze plana dala eta ez dala, hor dabilta jo eta su zirikatzen.

Kontua da, euskalduntze plan honen arabera, funtzionarioek 5 urteko epea ebeela euskara ikasteko; batzuk besteek baino hobeto, norberaren beharra kontutan hartuta. Horretarako baldintza politikak eduki dabez: Euskara klaseak lan-ordu kontsideratzen ziren; hau da, baeuken aukera beharrean 6 orduz aritzeko eta osteko 2 orduak euskara ikasten emoteko. Klaseak dohanik, musutruk ganera. Eta gura izan ezkeror urtebeteko liberazioa euskara egun osoz ikasteko, musutruk hori ere; edota barnetegiak, etab. Bada, plan honi jarraituz, funtzionari askok euskaraz polito ikasi dabe, gutxi batzuk nahiz eta ahaleginak egin ezin izan dabe ikasi; eta badira planari paso egin dautsenak, eta lan-orduak libre hartu dabezenak gero klaseetara ez joateko, etab... Orain, epea bukatzeko 9 hilabeteren faltan, batzuk larritzen hasi dira, eta badaezpadan protestaka ere; hor ere "txolloa" topatu dabe politiko batzuk "euskara diskriminatzaileari" egurra emoteko.



Horra hor egunotan prentsan agertutako "perla" batzuk:

*\*UNIDAD ALAVESA: "No se debe pedir ningún conocimiento de euskara a los funcionarios de la Administración Pública Vasca".*

*\*PARTIDO POPULAR: "Hay que imponer el perfil "CERO" de euskara en la Administración antes de que se de la objeción o insumisión al euskara".*

*\*ELA-STV: "Los responsables han actuado mediante la imposición y el decreto. Es preciso el consenso y el acuerdo".*

*\*PSE-EE: "Hay que revisar el plan nuevamente y suspender las posibles sanciones".*

... Hala bada guzti hauek non egon dira orain arte?... Eta non geratzen dan euskaldun "zapaltzaileok" euskaraz egiteko daukagun eskubidea, Administrazio **publikoan** ere ezin badogu egin?


**Txakur, etxe eta umeei orain arte ere egin izan dautsegu euskaraz. Eskerrik asko!**

# LEHIAKETA MUNDIALA

- 1.-Zein urtetan izendatu zuten Anjel Lertxundi idazlea, Euskal Idazleen Elkarteko lehendakari?  
\*Aipatu berak idatzitako 2 lan.
- 2.-Nork idatzi zuen argitaratutako lehen euskal liburua?  
\*Esango zeniguke liburuaren izena?
- 3.-Nor izan zen XVII. mendeko euskal idazlerik hoberena?
- 4.-Zein da Bernardo Atxagaren azken liburua?
- 5.-Zein izan zen pasa den urteko Durangoko liburu azokan gehien saldu zen argitaletxearen izena?
- 6.-Nikolas Ormaetxea, idazle Gipuzkoarra zen, baina ba al dakizu zein izenez ezagutzen zuten?
- 7.-Patxi Zabaleta, euskal idazleak, zein ezizenez sinatu zituen bere obra batzu?
- 8.-Non jaio zen Arantza Urretabizkaia idazlea?
- 9.-Nork idatzi zuen "GOIZUETAKO EZKONGABEAK" polizi nobela?
- 10.-Zenbat urtez egon zen Joseba Sarrionaindia idazlea espetxean?  
\*Epetxean egon bitartean, bilduma bat sortu zuen, zein izen eman zion?

## GABON KANTA

**OI BETLHEEM**  
 Oi Betlheim  
 ala heldu  
 zure garaia  
 Oi Betlheim  
 ongi baitu  
 dizdiratzen  
 zugandik heldu  
 den argiak  
 betetzen du  
 ludi guztia  
 Oi Betlheim  
 Oi Betlheim



## DEIALDIA

ITSAS-ALDEko neska ertainek, 14 urtetik 17ra, dantza mistoak egiteko mutilak behar ditugu.

Interesatzen bazaizu, zatoz ITXAS-ALDEra.

**ITXAS-ALDEko neska ertainek.**